

Ihesi

Euskal Herria ezagutzen


TESTUA ETA ARGAZKIAK:
UNAI BREA

Butroe ibaia (Bizkaia)

Plentziation



Butroera



Banderizoen bideetan

Bide erraz eta laburra dakarkizuegu oraingoan, ia guztiz laua. Aldapa gora ibiltzeari uko egingo diogu beraz, baina baita horrek ekarri ohi duen sariari ere: ez dugu, ibilbidean zehar, aparteko ikuspeirik bistaratuko. Erdikoari meriturik kendu gabe, zalantzarik ez da abiapuntua eta helmuga direla gunerik interesgarrienak; hariaren mutur batean Plentzia, bestean Butroeko gaztelua. Orain mende batzuk baino inguru lasaia goak, inondik ere. Aspaldi ezabatuta daude eskualdeko jaun eta jabe ziren oinaztarren oinatzak.

XV. mendea, garai latzak Euskal Herrian. Ahaide nagusi, txiki eta ertainak elkarri mokoka zebiltzan, gerra amaigabea. Bizkaian, oinaztarrek Muxika-Butroe leinua zuten buru, eta haiek Butroeko gaztelua gotorleku nagusi. Kilometro gutxira, sasoi betean zeuden Plentziako ontziolak, lan eta lan. Muxika-Butroetarrek bazeukaten etxe bat bertan, baita hiri osoa kontrolpean izateko gogoia ere.

Garai hura irudikatuz, erraz ikusiko ditugu butroetar gerlazeak Plentziarako bidean, edo handik bueltan, nola gaur egun Bilboko udatiar saldoak. Zaldiz, gurdiz edo oinez egingo zuten txangoa, ez daukagu daturik horren berri zehatzik emateko, baina aukera gehiagorik ez dago egia esanda, metro eta autorik ezean. Guk, ez zaldi ez gurdi, oinez ekingo diogu Plentzia eta Butroe lotzen dituen bideetako bati. Baliteke, nork jakin, orain dela bospa-sei mende bandokideek erabiltzen zuten haietakoa izatea. Oinaztarrak haiek, oinezkoak gu.

Plentziako pilotaleku inguruan hasiko da gure ibilbidea. Herrira metroz joanez gero, zubia zeharkatu beharko dugu; frontoia ia parez pare dago. Autoz joanez gero –Sopelatik etorrira BI-634 edo BI-3100 errepi-deak aukeratu ditzakegu–, pilotaleku ondoan aurkituko dugu aparkalekua, suertea lagun.

Lehenengo pausoak egin orduko aspaldiko marea-errotaren aztarnak ikusiko ditugu eskuman, beirazko hormak dituen etxolatxoaren babesean. Errepidean aurrera, 200en bat metrora dagoen errotonda handira ailegatuko gara. Ondoren, zuzen jarraitu behar da, Gandias auzora; errotonda atzean utzi eta berehala hasiko gara ikusten GR-280 ibilbidearen lehenbiziko ikur zuri-gorriak, aurrerantzean gure gidari. Gorlizko lurretan gaude dagoeneko.

XV. mendean ez zen asfaltoa existitzen. Guk, berriz, hori izango dugu oinen azpian tarte batez, Gandias auzoa zeharkatzen dugun bitartean eta haraxeago. Bidea bitan zatitzen denean, ezkerretara joko dugu, Koala haztegirako norabidea adierazten digun errotoluari jaramon eginetz. Hamar minutu baino ez dira igaro ibiltzen hasi garenetik.


Etxeak bakanduz doaz. Auzoaren amaiera adieraziz-edo, iturria aurki-

tuko dugu ezkerrean. Orain dela hamar urte berregin zuten, Udaletxeak bertan ipinitako errotolutxoak dioen legez. Ez da iturri gehiagorik izango bide osoan. Hortaz, goza dezala udal uraz egarri denak!

Larre, zuhaitz eta txaletak

Goranzko aldatza datorkigu jarraian, ibilbide osoan bakarra ia. Baina lasai, erretzaile amorratueneen birikek ere arazorik gabe eutsiko diote erronkari.

Ordekara itzuli bezain pronto asfaltoa amaituko da, eta mendi-bidea hasi. Kilometro eta erdi egin dugu Plentziatik, eta bost kilometrora daukagu Butroeko gaztelua. Halaxe dioskun errotoluaren ondotik, Uribe Kostako ohiko paisaia ikus daiteke: orlegia nongura, muinoa muinoaren ondotik, eta hamaikatxo baserri edo txalet, belardi eta zuhaitzi artean. Hemen eukaliptoia eta pinua dira nagusi, bertoko espezieen kalte.





Bide hasieran batez ere, xendra estuak eta landaredi oparoa topatuko ditugu.

Laster argituko da gazteluaren etorkizuna

XI. mendean eraiki zuten, butroetarren etxe zaharren gainean, Erdi Aroan hain ohikoak ziren dorreetako bat, eta gertakari hori jo ohi da Butroeko gazteluaren historiaren hasieratzat. Hiru mende geroago, borroka-giroak hala eskatuta segurantzean, dorrea gotorleku bihurtu zuten. Eraikin karratua zen, harresi batek inguratuta.

XIX. mendean errotik aldatu zioten itxura gazteluari, gaur egun duena emanez. Izan ere, erdi deseginda zegoen lehenengo karlistadaz geroztik. Torrecillako markesa zen hondarren ugazaba, eta beste markes bati, Francisco de Cubasi, eskatu zion gaztelurako diseinu berria egiteko. Cubaskoa arkitektoa zen noblea ez ezik, eta itxuraz, ondo bete zuen bere lana. Zenbaiten ustez, Butroeko gaztelua erromantizismo eklektikoaren eredurik azpimarragarriena da Espainiako estatu osoan. Erdi Aroan zuen itxuratik erabat aldentuta, gaurko gazteluak ipuin batetik ateratakoa ematen du, bere lau dorre, zazpi solairu eta hamaika apaingarriekin.

90eko hamarkadan, berrosatze-lan handiak egin ostean, orduko jabeek eraikina zabaldu zuten, jateke eta guzti. Harrezkero, bisitariak gaztelu barrua ikusteko aukera eduki zuten, harik eta 2005eko azaroan, ugazaben kiebrea medio, Inbisa enpresak bereganatu zuen arte, 1,6 milioi euro ordainduta. Gaztelua itxita egon da ordudanik, eta bisitariak —urrun samarretik etortzen dira batzuk— kanpotik baino ezin daitezke ibili. Inbisak 2007 amaieran edo 2008 hasieran jakinaraziko du gazteluarekin zer egiteko asmoa daukaten.



Bidea zabala da hasieran. Gutzika-gutzika bajatuz joango gara, lehen igotakoa kitatzeko nonbait. Jaitsiera amaituta, estutu egingo da bidea, eta guregana hurbildu, laztantzeraino askotan, alboetako landaredia oparoa. Batzutan, sabaia ere osatuko dute zuhaixkek. Halako batean, eskumako aldean eta hosto artean, ura sumatuko dugu, ikusi baino. Bidearen hasieran atzean utzi dugun Butroeko itsasadarra da, honezkero ibai huts bihurtuta. Gidari ezin hobe, bestalde. Izan ere, haren eskumako ibarretik egin beharko dugu hemendik amaierara arteko bide osoa.

IBAITIK HURBILEGI EGINDAKO ETXEAK

Oraindik ere tartetxo batez ibiliko gara marearen eragin-eremuan, eta noizean behin kaioaren batek edo beste egingo digu diosala. Eskumako

ibarrean, etengabe, Isuskitza urbanizazio eskerga izango dugu ikusgai. Hori du izen ofiziala, baina *Abanikoa* esaten diote denek inguruan. Isolatze gogoa eta dirua badituzu, erosi etxea hemen. Baina ez edozein. Auzokide batzuek arazo dezente eduki dute, euren etxeak ibaitik hurbilegi eraikita daudelako. Eraikitzaileek arazorik ez zegoela segurtatu zien, baina Espainiako Kostalde Legeak besterik dio. Auzia konpontzeke dago momentuz.

Arazo gehien izan duten etxeen parera heltzerako —erraz antzemango diezue, hain daude uretatik hurbil—, asfalto gainean izango gara osteria ere. Bat-batean agertu zaigu errepide berri hau, ezer ezetik, behearazko aldapa baten erdian. Lehentxoago, GR-ren errotuluek gonbitea egin digute Lemoizko Andraka auzora igotzeko.

Hortxe aukera. Kilometro bi besterik ez dira Andraraino. Gazteluraino, berriz, hiru falta zaizkigu.

Isuskitza auzoa guztiz atzean utzi eta gero, ibaia izango dugu interesgune nagusia. Baliteke inor ikustea piragua gainean, itsaso bila, baliteke ez ikustea ere. Seguru ikusiko —eta entzungo— duguna, bidean aurrera eginda, ur-jausi txiki eder bat da, harrizko zubi zahar baten hondarren ondo-ondoan hain justu. Bata zein bestea hurbilagotik ikusi nahi dituenak hobe du eskuman dagoen zurezko pasarelatik abiatu eta ibai ertz-ertzetik doan bidetxoari segitzea. Gero, atzera egin beharko da berriro, bide nagusira.

Gaztelua eta itzulera

Ur-jausiaren burrunba isildu orduko, txorien kantuak izango ditugu entzun-

Ezkerreko irudian, ibaitik hurbilegi eraikitako etxeak, *Abanikoa* auzunean. Erdikoan, ur-jausia, gaztelura ailegatzeko pare bat kilometro fata direla. Eskuman, Butroeko ibaia gaztelu ondoko zubitxotik ikusita.



Non jan

Plentzian:

Batela. Plazatxoa, z/g.
Tel: 94-677 18 59.

Lagun-onak.

Eleiz Enparantza, 14.
Tel: 94-677 41 68.

Butroen:

Errota-ondo garagardotegia.
Gaztelu ondoan.
Tel: 94-615 15 55.

gai bakarra, non beste oinezko batzuen solasa ez den. Ibaia bera ere lasaitu egin da zeharo, ia gelditzeraino. Gu ez gara geldituko ordea, eta konturatu baino lehenago Butroeko gaztelua agertuko zaigu ibaiaren bestaldean. Metro batzuk aurrerago, zubitxoa zeharkatuko dugu eskumarantz. Oso litekeena da jende mordoia egotea inguruan. Besteak beste, gazteluaren itzalean ondo hazitako jate-txean, gazteluko bisitariz bapo hornituta. Bisitari horietako asko ezuste desatsegina hartuko zuten, bidenabar esanda. Web-gune askok gaztelua barrutik ikusteko aukera iragartzen badute ere, gaur egun ez dago sartzerik, aurreko orrialdeko koadroan zehaztasun handiagoz azaltzen denez.

Edozelan, merezi du gaztelura hurbiltzea. Jatetxearen albotik igaro eta gero, eskumara doan zubitxoa da horretarako bidea. Lorategi eder batean agertuko gara orduan. 45.000 metro koadro ditu, eta aipatzeko moduko ale bi: era bitxian makurtutako japoniar zedroa, eta 31 metro altu den pinu erraldoia. Erdi-erdian, gaztelua. Gure helmuga.

Etortzeko erabili dugun bide beretik itzul gaitezke, nahi izatera. Ordu eta erdi inguru baino ez da behar, beraz ez da astakeria. Beste aukera bat autobusa da –Mungia- edo Sopolara eramango gaitu-, baina ez da oso sarri igarotzen. Onena, tabernan eskatzea bai ordutegien bai geltokira ailegatze-ko moduaren berri. ■

G P U N T U A

IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007



www.gpuntua.com

FINAL-LAUDENAK:



Iñaki Gurrutxaga, Jexux Mari Irazu, Xabier Sukla, Agin Rezola,
Unai Agirre, Joxe Munduate.

Urriak 20, larunbata

AZKOITIA

Baztartxo Antzokia

18:00etan



Jon Martin, Uxue Alberdi, Iñigo Izaguirre, Unai Muñoz,
Aitzol Barandiaran, Josu Olartzabal

Urriak 21, igandea

IRUN

Amaia Antzokia

17:00etan

Laguntzailea:

